



GUITRANS



Eraginkortasuna, moldakortasuna eta iraunkortasuna, garraioaren etorkizuneko hiru zutabeak

Larunbat honetan, ekainaren 8an, GUITRANSeko Bazkideen Batzar Nagusia egin da UPV/EHUko Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan. Bertan, elkartutako garraio-enpresez gain, Estatuko beste erakunde batzuetako ordezkariak izan dira, besteak beste, Fenadismer elkartekoak, beraz, ordezkaturako enpresen kopurua oso zabala izan da. Bertan José Antonio Santano Garraioen eta Mugikortasun Iraunkorraren Estatu idazkaria eta Marcos Suárez ProfiECO Sistemas, S.L. digitalizazio prozesuetan espezializatutako enpresako arduraduna izan dira. 47 urteko ibilbide egiaztatua duen elkarteak garraioaren modernizazioaren inguruan zentratu du ekitaldia, gaiak berebiziko garrantzia baitu sektorearentzat.

GUITRANSeko presidente Javier Ortegak adierazi du eraginkortasuna, moldakortasuna eta iraunkortasuna izango direla etorkizunean salgaien errepideko garraioaren oinarri nagusiak, eta bi kontzeptu estrategikoren garrantzia azpimarratu du: digitalizazioa eta deskarbonizazioa, elkarren artean estuki lotuta daudenak, propulsiio-moduak ez ezik garraioaren logistika osoa ere irauliko dituztenak. Era berean, nabarmendu du energia-ereduaren trantsizioa modu justu, seguru eta posiblean egin behar dela, ekoizpen-sistamarako ezinbesteko jarduera mantenduz, horretarako bioerregaien erabilera ere kontuan hartuta.

Gasolioak sektorearen buruhausteetako bat izaten jarraitzen du, nahiz eta 2023an prezioak behera egin duen, jaitziera hori engainagarria da, 2021etik 2024ko lehen hiruhilekora % 30 igo baita.

Beste koska bat bidesarienta da. Garraiolariak zerga-biltzaile bihurtzen ditu, bidegabe, sektorearen iritziz. Ortega jaunak balioetsi du ingurumen-kategoriaren eta erabilera-maiztasunaren arabeko deskontu-sistema bat lortu ahal izan dela, luzaro aldarrikatu eta gero. Gorenak baliogabetutako arauai aurkeztutako helegiteei dagokienez, GUITRANSek aurkeztutako erreklamazioak, guztira milioi bat euro ingurukoak, aldeko epaiak jasotzen hasi direla ere aipatu du.



GUITRANS



Gidarien falta, eraldaketa digitalarekin eta ingurumenarekin batera, garraioak aurre egin beharreko erronka handienetako bat da, eta haren etorkizuna baldintzatzen ari da, Ortega jaunaren hitzetan. Beren lan profesionala betetzeko garraioaren aldeko apustua egitea erabakitzen duten gidari berriek ziurtasuna eta egonkortasuna behar dute, eta hori ere eskatzen dute garraio-enpresa kontratatzaileek, egungoa bezain aldarora den testuinguru ekonomiko batean, lehia zorrotzarekin, errentagarritasun-tarte gero eta txikiagoekin eta erabakiak hartzea zaila den testuinguru batean. Argi dago egunero hobetu behar direla lan-baldintzak, kontziliazioa, etengabeko prestakuntzara edo garapen profesionalerako aukera gehiago eskainiz, baina horretarako gidari kualifikatuak eta trebatuak behar dira. Administrazioak errealitate horren jakin gainean egon behar du, profesional berriak sektorean sartzen laguntzeko ekimenak bultzatuz eta abian jarritz.

Gipuzkoako Trafikoko Buruzagitzan langilerik ez egoteak atzerapen handiak eragin ditu urteko zenbait unetan, eta hori izan da batzarrean aztertu den beste gaietako bat, egindako gestio ugarien berri emanez. Bestalde, irailean abian jarriko den Gipuzkoako Garraioaren Arbitraje Batzordeari dagokionez, presidenteak deitoratu du bi urte baino gehiago pasako direla eskumen hori transferitu zenetik Batzordea martxan jarri arte. .

Bertaratutakoek txalotu egin dute Zaisako aduanarako sarrera moduaren berrantolaketa markatzaile digitalen bitartez. Hainbat administrazio eta erakunderen arteko lankidetzak emaitza ona eman du, eremu horretan behin eta berriz gertatzen ziren kolapsoak ekiditea lortuz.

Ekainaren 3tik 4ra lehen sektorea mugaren bi aldeetan egindako mobilizazioen ondorioz izandako auto-ilara ikaragarrien oroitzapena izan da hizketagai, garraio-enpresek jasandako kalte handiak sallatuz. Presidenteak Eusko Jaurlaritzako Trafikoko zuzendariari bilera bat eskatu zaiola iragarri du gaia aztertzeko eta, batez ere, etorkizunean horrelako egoera bat berriro gerta ez dadin.

José Antonio Santanok Mugikortasun Iraunkorraren Legearen garrantzia nabarmendu du, tramitazio-fasean baitago, eta trantsizio horrek dakarren erronkari modu integralean heltzea du helburu. Ildo horretan, aurre egin beharreko lau erronka nagusi aipatu ditu: soziala, ingurumenekoa, digitalizazioarena eta inbertsio publikoak gizarte-balio handiagoa sortzera



GUITRANS



bideratuko direla bermatzekoa. Santano jaunak aurreratu du legea 2026ean sartuko dela indarrean.

Marcos Suarezek azaldu duenez, digitalizazio egoki baten arrakasta funtsezko bi zutabetan oinarritzen da: irtenbidea enpresa bakoitzaren beharretara egokitzean eta ezarpenaren ondorengo prestakuntzan eta euskarrian.